

Alemania ere

Eredugarria omen den herrialdean eskuin muturra Bundestagen sartu da dagoeneko. Hauteskunde osteko analisi ia gehienetan Berlingo Gobernuak atzerritarrekiko izan duen politikan ipini dute arreta alderdi xenofoboaren gorakada azaltzeko. Begirada bakarrekiko analisia, inondik ere. Garrantzi handiko gaia izan arren, asilo politika ez baita boz erradikalaren igoera azaltzeko faktore bakarra izan. Alemania arrakastatsuan errealtate sozioekonomikoaren narriadura begi-bistakoa da.

Ezin da ukatu enplegua sortzeko bertan dagoen dinamismoa apartekoa dela, eta oro har, azkenaldian batez besteko soldaten igoera eman dela. Europako herrialde nagusiak ondo jakin du azken hamarkada eta erdian euro-guneak sortutako hobariei probetxua ateratzen. Esaterako, langabezia-tasa beheratzea lortu du 2007ko %8,5etik 2016ko %4,4raino, krisi beteko garaian alegia.

Hala ere, datu makroekonomiko positibo horiek ez dute azkenaldiko lan eta gizarte egoeraren higadura balaztatu. Alemania ere kohesio sozialaren gainbeheraren eta desberdintasun gorakorraren herrialdea da, Angela Merkelen Gobernuaren doikuntza neurriak eta politika zorrotzak hauspotuta. Bertako desberdintasun indartsuen erakusle, Alemaniako Gini indizea -koefizientea- Europar Batasuneko garaienen artean kokatzen da. Are gehiago, gizartearen errenta dibergentzia gora doa. Krisiak errenta eta aberastasunaren kontzentrazioa indartu du. Gizarteko %10ak aberastasun guztiaren %65 zuen 2016 urtean, *Credit Suisse*-eko datuen arabera. Beste muturrean, herritarren %15a (12 milioi pertsona baino gehiago) pobrezia atariaren azpian bizi zen 2015 urtean. Milioidunen herrialdean milioika pobre daude, horixe paradoxa!

Bestalde, lan merkatuaren azterketak ere ez du egoera hoberik erakusten.



Mikel Zurbano
EHU-KO IRAKASLEA

Alemania ere kohesio sozialaren gainbeheraren eta desberdintasun gorakorraren herrialdea da, Angela Merkelen Gobernuaren doikuntza neurriak eta politika zorrotzak hauspotuta. Bertako desberdintasun indartsuen erakusle, Alemaniako Gini indizea -koefizientea- Europar Batasuneko garaienen artean kokatzen da

Enpleguaren sorrera bizkorra izan da azkenaldian, baina enplegu berri ugariaren kalitatea oso ahula da. Aldi baterako edo denbora partzialeko eta soldata oso apaleko *minijob* gisa ezagunak diren enpleguak oso bizkor hedatu dira. Iaz 11 milioi langile ziren lan kategoria honetan zihardutenak, enplegu guztiaren %26,7 alegia. Eta 2.000 milioi pertsonatik gora lan bat baino gehiago egin beharrean daude, denbora partzialeko prekarietateak eta soldata apalek horretara behartuta.

Errealtate gordin horren argazkia eta analisia egin du Oliver Nachtwey alemanak *Jaitsieraren gizartea* goiburua duen bere azken liburuan. Egile honen tesiaren arabera 1970eko hamarkadatik igogailu sozialak kontrako norabidea hartu du mendebaldeko herrialdeetan, baita bere herrialdean ere, non prekarietatea eta gizartearen polarizazioa eguneroko ogia diren. Eta hala ere, oraindik ere, gizarte alemaniarak bere burua igoeraren gizartetzat du. Baina Atzeraldi Handiarekin hazkunde osteko kapitalismoan gaude eta integrazio sozialerako baliabideak eta borondatea ahitzen ari dira.

Nachtweyk azpimarratzen du eraberritutako modernizazioa egon dela baina atzerakoa izan dela. Izan ere, askatasun soziala eta araugabetze ekonomikoa elkarrekin ematen dira: berdintasunaren aldeko urratsak eman diren arren, arlo ekonomikoan atzerako pausoak nagusitu dira. Esaterako, emakumeek lan merkatuan presentzia handiagoa dute baina prekarietate gehiago nozitzen dute. Alemanian ere, kapitalismoaren eta demokraziaren arteko eta askatasunaren eta berdintasunaren arteko tentsioa gora doa gatazka era berriak eraginda. Horregatik, jaitsieraren gizartean alienazio politikoak apatia eta xenofobia dakartza, baina baita herritarren protesta era berriak ere. ■